

Euskarak Altsasun egindako ibilbidea. Aurkezpena.

1. Sarrera.

- Liburua bilketa lan bat da. Bertan jaso dugu denboraren joanean Altsasun euskarak egindako bidea da.
- Historia soziolinguistiko osatuago bat beharko litzateke bide hori sakonago ezagutzeko, baina honek hurbiltzeko balio du. Altsasuar gehienak gai honen inguruan suposa dezaketena datuekin baieztatzen da liburuan.
- Historia printza bilduma da, euskararen ingurukoak, eta bere komunitatea eta Altsasuk protagonista ditu. Mota guztietako gertakariak jaso ditugu. Batzutan zuzen, besteetan oker, hobeto edo txarkiago, baina gure hizkuntzak egindako bidea eta haren “aldeko” lana islatzen saiatu gara liburu honetan.

2. Ibilbidea.

- Ez dago zalantzarik gizaki euskaradunen komunitate batek sortu zuela Altsasu herria. Horrek ez du esan nahi garai bateko altsasuarrek erromatarren latina edota Banu Qasitarren arabiera ezagutuko ez zutenik.
- Altsasu pertsona euskaldunez osatutako euskal komunitate bat izan zen antzinatik. Baina Nafarroako Erresumaren txikitzearekin batera mugak eta egoerak aldatzen hasi ziren. Hizkuntzalari batzuen ikerketak diote euskalkien egituratzea bultzatu zutela euskararen herrian Erdi Aroan sortutako muga administratiboak. Garai hartan herri xeheak euskaraz hitz egiten zuen bitartean, agintariak erromantzean hitz egin zuten. Agiriak dira horren lekuko.
- Nafarroako Erreinua konkistatua izan eta gero beste hizkuntza bat erabiliko da administrazioan: gaztelania. Estatuak konkista eta gero gaztelania bultzatu du soilik. Nafarroako erakundeek ez zuten euskararen aldeko aukera garbirik egin. Udalean euskara presente egonen zen, baina aktak gaztelaniaz jasoak daude.

1645ean eta 1647an alkatearen eta apaizaren arteko “ez-ulertuak” epaitegian bukatu zuten. Hala dakigu biak elebidunak zirela.

1767 Nafarroako Erret Kontseiluari egindako eskaera baten ondorioz dakigu Sakanan gaztelaniaz hitz egiteko trebe zirela apaizak, eskribauak, sendagileak, botikariak, al baitariak, errementariak, zirujauak, ikasleak Tabakoko Erret Errentako ministroak, irakasleak, jostun, zapatari, nekazari eta mandazainen bat eta pasan zeuden kanpotarrak. Gainontzekoekin euskaraz aritzen ziren, ohiko hizkuntza zelako.

Jose Fuentes Altsasura telegrafista lanak egitera bidali zuten, eta 1873an bere memoriak argitaratu zituen. Altsasun 1856 aldera egon zen.

Zera nabarmendu daiteke memoriatik: *“El lugar tenía un censo de población algo superior al millar de habitantes, labradores y ganaderos y algunos artesanos, todos vascoparlantes”*

- 1863an Louis Lucien Bonapartek *Carte des sept provinces basques* mapa argitaratu zuen. Orduko euskararen hedapena eta euskalkien berri ematen zuen mapa. Altsasun gipuzkera hitz egiten zela jaso zuen. Lan horrek hizkuntzalaritzari eta euskaltzaleztasunari ate berriak ireki zizkion. Horren fruitu izan zen, karlistada eta gero sortu zen Asociación Euskara de Navarra. Altsasuko notarioa, Miguel Jorge Jauregi arbizuarra elkartearen Arturo Campionen eskutik sartu zen. Hazi hori XX. mende hasieran indartuko zen.
- 1864-03-09an Jose Iriarte Zufiaurre bertsolari altsasuarra jaio zen.
- 1864-08-15ean trena Altsasura iritsi zen eta harekin arlo guztietan aldaketa handiak etorri ziren Altsasura.

Ekonomia: Trena iritsi aurretik Altsasuko ekonomiaren ardatza erdal eremuetara bidaiara egiten zuten mandazainak eta bizi-iraupeneko nekazaritza eta abeltzaintza ziren. Trenaren eraikuntzak eta mantenuak jende asko erakarri zuen. Piamontekoak eraikuntzan aritu omen ziren eta penintsulako langileak ere etorri ziren. Trenarekin batera Altsasuren industrializazio prozesua hasi zen. Baita turismoa, bainuetxeak euskara ez zekiten udatiar asko eta asko erakarri zituen.

Demografia. Trena iritsi aurretik Altsasura etortzen ziren kanpotarrak Euskal Herriko landa eremukoak ziren, euskaldunak. Trenak eta industrializazioak urrutiagoko jendea erakarri zuten, euskara ez zekitenak.

Erljioa. Euskal hizkuntza komunitateak mezak eta predikuak euskara hutsez jasoko zituen urteetan. Baina bere aldamenean beste komunitate bat gorpuztu zen eta eliza ere haren hizkuntza, gaztelania, erabiltzen hasiko da pixkanaka.

Kultura. Euskara eskolatik kanpo zegoen, nahiz eta garai batean udalen ardura izan irakasleak kontratatzea. Euskara lantzeko aukera apaizek eta gutxi gehiagok zuten.

Ideologia. Europako aireek abertzaletasuna sortzea ekarriko zuten, baina hona iritsi zenerako karlismoa eta liberalismoa aurkari zaharrak ziren. Euskara bere ideiak zabaltzeko eta liberalen aurka egiteko erabili zuen karlismoak. Liberalen artean euskaltzale batzuk ere bazeuden (Altsasuko notarioa, esaterako).

Industrializazioarekin langileei lotutako mugimenduak etorri ziren Altsasura. Pentsaera haietako askorendako euskara aurrerapenerako oztupo zen. Euskara ezjakin, asto eta kaikuen kontutzat zuten.

- Horren guztiaren ondorioak XX. mende hasieran agerian geldituko ziren.

Euskara gutxiestea

- 1913-04-26an, <<Para qué quiero vascuence>> mutil bati aditu euskaldun bat zalakoan eta biotza erdibitu zitzaigun”.

- 1916ko neguan, tren geltokian izandako elkarrizketa:

Zer garaietan eldu da Iruñako trena? – esan nien alemana nizala uste zutenai.

- No conocemos esa lengua y creo que por aqui no le entenderán a V. señor. – erantzun zidaten.

Orduban biotza oso minberatua neukala berriz esan nien:

- Tendrían ustedes la amabilidad de decirme si son ustedes de Alsasua?

- Si señor, somos barranquesas.

- Y no han entendido la frase baska que les he dirigido?

- No señor. Hemos creído que era aleman inglés ó así.

- Y ustedes se dicen barranquesas?

- A mucha honra.

- Y no cultivan el euzkera?

- Para qué?

- No saben el bascuence?

- Nuestros padres si pero nosotras no”.

- 30/40 hamarkadako testigantzak:

Elvira Goikoetxea (82 urte):

“Ni beti euskaraz, erdaraz txarki moldatzen naiz. Ez dakigu erdaraz eta!” (...) *“Erdaraz ez jakiteagatik guri burla egiten ziguten Altsun (Altsasun). Altsuarrak ikaragarriak ziren euskararen kontra, guk ezagutu genituenak behintzat”.* (...) **“Guri burla asko egin izan digute eta horregatik pentsatu izan dut, nire umeez berdina ez pasatzeko. Orain ez dut horrela pentsatzen. Eskerrak erakutsi niela!”**

Luzio Zubiria (90 urte):

“Altsasun, burla eta barre gure kontura. Olaztiarrak ere tentagarriak ziren eta burla egiten ziguten”.

Marili San Roman (74 urte):

“Lehen barre egiten ziguten erdaraz ez genekielako”.

Euskaltzaletasuna

- 1904-12-20an, Altsasuko Udalak praktikantea kontratatzekeo deialdia egin zuen eta euskara jakiteko “exijentzia soila” egin zuen.

- 1907-06-01an, Altsasuko parrokiako ordezkariak bat egin zuten hizkuntzaren normalizazioan lan egiten zuen Euskal Esnalea elkartearen sorreran.

- 1915eko uda, euskal toponimoak eta patronimikoak bilketan eta ikerketan laguntzeko deia egin zen. Diru ekarpena egin zuten artean Simon Lezea altsasuarra zegoen (10 pezeta).
- 1918-1936 Denbora tarte horretan zortzi altsasuar Eusko Ikaskuntza erakundeko bazkide izan ziren

- Espainiako Gerra Zibilaren aurretik Altsasuko euskal hiztun komunitateak ondoan erdal komunitate bat hazten ikusi zuen. Bai bateko bai besteko elebakar kopurua berdindu egin zen. Erdaldunen artean, pentsatzekoa da gutxi batzuk besterik ez zutela euskara ikasiko. Euskal komunitateak puztuko zuen elebidunen kopurua, gaztelania ikastea.

Baina ezin da argitu elebitasuna zein neurritan zegoen zabaldua. Are zailagoa da jakitea hiztunek noiz, norekin, zein egoeratan eta zergatik erabiltzen zuten hizkuntza bat edo bestea. Pentsatzekoa da euskaldunek lortzen zuten erdara maila nahiko aldakorra izanzen zela pertsona batetik bestera. Elebitasunak, hala ere, aurreiritziak kendu eta konplexuak uxatzeko ere balio zezakeen.

Altsasun, gazteleraz hitz egiten zuen komunitate bat sortzeak eta errotzeak izan zuen bestelako eraginik. Euskara bizirik egon arren, aldameneko herrietako biztanleendako Altsasu herri erdalduna bilakatu zen. Horren testigantza eman zuen Jose Migel Barandiaranek. Txikitik nahiko lan izan zuen gaztelera ikasteko eta berak esana da Altsasura erdara ikastera etortzen zela. Bere aitarekin behin baino gehiagotan etorri zen ferietara haziendak saldu eta eroatera.

Hala ere, Altsasuko euskal komunitatearen barne dinamika sendoa zen, aldamenean zuen erdararekin gero eta harreman gehiago bazuen ere. Joxe Iriarte Zufiaurre moduko bertsolari bat sortzeko hizkuntzak bizitasuna eta sendotasuna behar zituen, eta argi da bazituela, bestela ez ginatekeelako bertsolariak ariko.

Horren atzean egon zitezkeen arrazoiak batzuk hauek dira: familia bidezko euskararen transmisioa ez zen eten eta hizkuntzak barne indarra mantendu zuen; euskal komunitatearen egitura mantendu egin zen, gutxieneko gizarte egitura, batzuetan behintzat; erdara aldamenean izanda ere, euskara jakiteko arrazoi praktikoak izanen zituzten; euskararen bidez sortzen ziren talde barneko lotura afektiboak; eta beste arrazoi batzuk.

Hala ere, Altsasun euskarak zuen pisua ahuldu egin zen. Altsasuarrek ez zuten modurik izan etorkin haiei beren balioak transmititzeko, euskara tarteko. Euskalduntzeko tresnak falta ziren, eta langileen lan eta bizi baldintzek ez zuten horretarako lekurik uzten.

- Espainiako Gerra Zibilak eta ondorengo diktadurak ia erabat desagerrarazi zuten euskara Altsasun. Euskal komunitatearekin batera, jakina, Altsasuko euskalkia ere galdu zen, betiko. Zorionez, hizkera horren testigantzak hainbat ikerketa eta grabaziotan gelditzen dira. Esan beharra dago horrelako lanek eta gerra ondoren piztutako euskaltzaletasunak hats berria eman diotela euskarari.

- 60/70 hamarkada. Altsasuar heldu batzuk besterik ez zekiten euskara, baina hizkuntzarekiko eta euskal kulturarekiko interesa indartu zen:

1968an 120 haur euskarazko eskolaz kanpoko klaseetara joaten ziren. Helduendako euskara klaseak ere hasi ziren.

1971n Iñigo Aritza ikastola sortu zen.

1973-10-07an Altsasuk Nafar Hizkuntzaren Eguna hartu zuen.

1973-11-10an *Euskal kulturaren alde* lelopean hitzaldi zikloa hasi zen.

1976-12-05ean meza euskaraz ematen hasi ziren Kaputxinoen komentuan.

3. Hizkuntzak aurreratu duena.

- Toki-administrazioa:
 - Euskararen Legearen arabera eremu euskaldunean.
 - Euskararen ordenantza.
 - Langileendako hizkuntza eskakizunak.
 - Udalarekin harremanak euskaraz izateko aukera.
 - Jendaurreko komunikazioak elebidunak.
 - Euskara Batzordea.
 - Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzua eta Euskara Batzordea.
- Hezkuntza:
 - Haur Eskolak euskaraz
 - Haur Hezkuntzatik Batxilergoraino euskarazko eskaintza.
 - D eredua nagusi.
 - Helduen euskalduntze-alfabetatzerako euskaltegia.
 - Mintzakide programa.
- Foru-administrazioa:
 - Inprimaki elebidunak.
 - Hizkuntza eskakizunak lanpostu batzuetarako: mendizainak, mediku eta erizainak...
- Aisia, kultura eta kirola:
 - Ludoteka euskaraz.
 - Zenbait kirol jarduera euskaraz.
 - Zenbait kultur eskaintza euskaraz (gehienak haurrei zuzenduak).
 - Kultur, aisialdi eta kirol jarduera gehienak ele biz iragartzen dira.
- Hedabideak:
 - Eskualdeko komunikabide euskaldunak.
 - Hedapen handiko komunikabideak euskaraz.

- Merkataritza:
 - Bai Euskarari Ziurtagiria.
 - Itzulpen Zerbitzua.
 - Paisaia euskalduntzeko ekimenak.
 - Errotuluak euskalduntzeko diru laguntzak.
- Lan mundua:
 - Lan mundua euskalduntzeko eskuliburua.
- Motibazioa:
 - Hizkuntzek duten balioa onartuta.
 - Euskarak aldeko lana behar duela gauza jakina.
 - Mugimendu soziala bada: EHE, AEK, Kima...
- Corpusha:
 - Altsasuko testigantzak jaso eta aztertzeko lanak.

4. Non gaude.

- Lau altsasuarretik batek daki euskaraz.
- Kanean egiten diren elkarrizketen %8,9 dira euskaraz.
- Lau ikasletik hiru D ereduan matrikulatuta dago.

5. Hizkuntzarendako erronkak:

- Administrazioan:
 - Herritarrekiko euskarazko arreta bermatzea soilik informaziorik oinarritukoena iristen zaie herritarrei ele biz.
 - Udal eta mankomunitateetan lan-hizkuntza izatea.
 - Udalaren Euskara Batzordea aktibatzea.
 - Euskararen ordenantza berri eta eguneratzea.
 - Udal langileen euskalduntze-alfabetatzea planifikatzea eta sistematizatzea.
 - Kale-izendegia euskalduntzea.
 - Kontratazioetan hizkuntza irizpidez ezarri.
 - Erabilera plana egin.
- Hezkuntza:
 - Lanbide Heziketako ikasketak euskaraz egiteko aukera.
 - Langile eta langabetuendako ikastaroak euskaraz egiteko aukera.
 - Ikasleek euskara hizkuntza akademiko huts bezala ikusteari uztea.
 - Helduen euskalduntzea bultzatzea, eta ez uztea dena haurren bizkar.
 - Euskara oinarri duten hizkuntza eredu eleanitzen aldeko apustua.
 - Musika eskolako eskaintza euskalduntzea.

- Foru-adminitrazioa:
 - Nafarroako gobernuko profesional guztiekin euskaraz hitz egiteko aukera bermatzea hizkuntza eskakizun egokiak ezarriz lanpostu guztietan.
 - Gobernuko komunikazioak euskaraz ere jasotzea.

- Aisia, kultura eta kirola:
 - Haurren kirol hezitzaileak euskaldunak izatea.
 - Gazte eta helduendako euskarazko kultur eskaintza ziurtatzea.
 - Euskarazko sorkuntza bultzatu.

- Hedabideak
 - Tokiko komunikazio proiektuak sendotu ez daitezen diru-laguntzen menpe egon.
 - Altsasuarren internet bidezko sare euskalduna sortu.

- Merkataritza:
 - Bai Euskarari Ziurtagiria indartu
 - Paisaia linguistikoa euskaldundu

- Lan mundua:
 - Enpresetan euskara erabiltzeko beharra zabaldua. Euskararen aldeko ekimenak sortu
 - Enpresetan normalizazio planak abian jarri.
 - Lan-hitzarmenetan euskarari buruzko aipamenak egin eta ziurtatu idatzitakoa betetzen direla.

- Motibazioa:
 - Euskaltzale izatetik euskaldun izateko pausua eman.
 - Euskara erabiltzeko uneak eta guneak sortzea.
 - Euskara etorkinendako harrera hizkuntza bihurtu.
 - Euskararen gizarte erakundeak indartu.

- Corpusa:
 - Bertako euskalkiaren ezaugarriak gizarteratu.